

BEÑAT ETXEPARE

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKI ARETOA

SALA DE TEATRO PARA NIÑOS, NIÑAS Y JÓVENES

Temporada 2022 - 2023 *Denboraldia*



AHATETXO ITSUSI BATEN EGUNEROKOA
Material pedagogikoa

ntolatzailea / Organizador

Babeslea / Patrocinador

Dirulaguntzak / Subvencionan



TEATRO ANTZOKIA
PRINCIPAL
VITORIA-GASTEIZ



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA



audaces
Círculo Estatal de Artes Escénicas
para Audiencias Escolares

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Laguntzaileak / Colaboran

Bazkidetza / Asociada a

EL CORREO
PARTE DE TI ZURE BAITAN

eitb

Casa del Libro



BIARGI SAREA

adeste+

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union

AURKIBIDEA

0. LIBURUAK, ARBELA ETA... DANTZA

1. ESKOLAN IKERTUZ *Antzokira bisitaren aurretiko jarduerak*

1.1 DINAMIKA. *ARRAROTASUN-ALBUMA AURKITZEN DUGU*

1.2 DINAMIKA. *ARRAROTASUN-DETEKTAGAILUTIK PASATZEN GARA*

1.3 DINAMIKA. *NI DESBERDINA NAIZ*

1.4 DINAMIKA. *LAGUN DESBERDINAK BILATZEN DITUGU*

1.5 DINAMIKA. *PAISAIA MUGIMENDUAN*

2. ESKOLATIK ANTZOKIRA *Lan eszeniko bat ikustearen esperientzia*

3. PUNTU ETA JARRAI *Antzokira bisitaren ondorengo jarduerak.*

3.1 DINAMIKA. *PAISAIA MUGIMENDUAN*

3.2 DINAMIKA. *GURE LAGUN DESBERDINAK*

3.3 DINAMIKA. *BESTE LAGUN DESBERDINAK*

0. LIBURUAK, ARBELA ETA... DANTZA

Testu hau irakurtzen hasi bazara, eskolan zure lana garatzerako garaian tresna gehiago edukitzea gustatuko litzaizukelako da. Liburuak, arbelak eta...dantza, zergatik ez? Dantza tresna oso baliagarria izan daiteke jakin-minak esnatzeko, beste begirada batzuetaz ohartzeko edota gorputza eskolan egiten den lanaren ardatzean jartzeko.

Egun batzuk barru “Ahatetxo itsusi baten egunerokoa” obra eszenikoa ikustera joango zarete. Dantza-sorkuntza bat da, aniztasunaren eta desberdintasunaren gaiak ardatz nagusizat dituenak. Hauek ez dira ikasleengandik urruti dauden gaiak, baina agian, kontzienteago izan behar dugu gai hauekiko, eta non eta nola kokatu laguntzen diguten hainbat balioetaz. Nortzuk dira desberdinak? Zer suposatzen du desberdin izatea? Alda daitekeen zerbait al da? Hau da “Ahatetxo itsusi baten egunerokoa”k eskolan planteatu eta garatzen lagundu dezakeen ideia nagusia.

Hezkuntza-unitate hau baliagarria egingo zaizu, lan hau hasteko. Irakur ezazu eta zeurea egin, jarrai ezazu hasieratik bukaerara, nahastu edota atalik gustokoenarekin geratu zaitez. Dakizun bezala, hezkuntzan ez dira formula magikoak existitzen, ikasle guztiak ez dira berdinak eta beti ez gara modu berean sentitzen. Horregatik garrantzitsua da zu, irakasle bezala, proposamen hau zure eskolara lurreratzea, ikasleen ahotsak entzunez eta dinamika bakoitza zure errealitate zehatzetara egokituz. Erronkari heltzeko gogoz?



1. **ESKOLAN IKERTUZ.**

ANTZOKIRA BISITAREN AURRETIKO JARDUERAK

Antzezlan bat gai zehatz baten bitartez bideratu daitekeen arren, garrantzitsua da ez ahaztea beste galdera askoren sortzaile eta gai desberdinen iturri ere izan daitekeela, momentu bakoitzean eskolan lan egitea interesatzen zaigunaren arabera eskuratu ditzakegunak..

Oraingoan gure **ikasgela ikerketa espazio txiki/handi batean bihurtzea** proposatzen dugu. Ikerketa, “arraro” hitzaren esanahi desberdinak aztertzean eta desberdin izateak zer suposatzen duen pentsatzean datza. Horretarako hurrengo dinamikak proposatzen ditugu:

1.1 DINAMIKA. **ARRAROTASUN-ALBUMA AURKITZEN DUGU (15 MIN INGURU)**

“Arrarotasun” hitza erakargarria ez suertatzea gerta daiteke. Seguruena arauetatik ateratzen den horri buruz hitz egiteko erabiltzen dugulako, edota arrotza sentitzen dugun eta deseroso sentiarazten gaituen zerbait adierazteko erabiltzen dugulako. Baina, noiz hasten da zerbait arraro izaten? Ez al ditugu ba norberak geure arrarotasunak? Ariketa hau guzti honen inguruan kontzientzia hartzeko eta esanahi honi buelta emateko erabiliko dugu. Arrarotasunak, aldatzeko zerbait izan beharrean, paregabeak eta bereziak egiten gaituen ezaugarriak bezala pentsatuko ditugu. Unitate honekin batera saioak garatzen lagunduko dizun objektu bat eskaintzen dizugu. Album bat da, eta orriak hutsak dituen arren, ondorengo materialak dauzka:



1. Ikasleei zuzendutako Paraiso Antzerkiaren eskutitz bat, arte-esperientzia batean parte hartzea gonbidatzen dituenak, oraingo honetan “Ahatetxo itsusi baten egunerokoa” ikuskizunaren inguruan.
2. Ikuskizunaren argazki-sorta bat.
3. Obraren sinopsia, emanaldira joateko sarrerekin batera.

Dinamikaren deskribapena:

Egun batean, ustekabean, mahaiaren gainean album bat agertzen da. Album handia da, familia-argazkien albumen tankerakoa. Baina honek izenburu bat darama, *Arrarotasun-albuma*.

Albumaren izenburua komentatzen hasi zaitezke: *Zer da arrarotasun-album bat? Zer aurkitu daiteke bere barruan? Nori gustatzen zaizkio arrarotasunak?*

Ondoren, eskutitza jakin-minez irakurri, taldearen parte-hartze aktiboa sustatuz, eta jarraian, albumaren bigarren materialean ipini atentzioa: argazki-sorta bat.

Dagoeneko eginak dauden taldeei (lau edo bosnaka) argazki bat banatu. Minutu batzuetan zehar talde bakoitzak argazkia begiratu du eta irudiak iradokitako hitzetan pentsatu du. Argazkiaren koloreei buruz hitz egiten duten hitzak,

dauden lekua deskribatzen duten hitzak, agertzen diren pertsonaiek kontatzen ari diren istorioen hitzak, pertsonaien ezaugarriei buruzko hitzak (altuak edo baxuak diren, oinak handiak dituzten, aurpegi luzatuak...), haien arropei buruzkoak, nola sentitzen diren uste dugunei buruzko hitzak, zer soinu entzuten dituzten, zein garaietan gertatzen den argazkiaren momentua... Hitz solte guzti horiek argazkian idazten joango gara.

Ondoren, partekatu egingo dituzue, guztiak besteen argazkiak ikusi ahal izateko eta idatzitako hitzak entzuteko. Amaitzean argazki horiek zeri erantzuten dioten edota zein gairi buruz hitz egiten ari diren galdetu dezakezue.

Dagoeneko ikuskizunaren gaian murgildu zarete. Jarraituko dugu!



1.2 DINAMIKA. ARRAROTASUN-DETEKTAGAILUTIK PASATZEN GARA (15 MIN INGURU)

Arrarotasun-detektigailua sortuko dugu, entzuten joango diren irizpide ezberdinen arabera, taldea desberdintzeko balioko duena. Helburua desberdintasuna aldakorra den zerbait bezala ulertzea da, pertsonaren arabera eta honek hitz egiten duen lekuaren arabera, eta baita taldearentzat positiboa eta aberasgarria den zerbait bezala ulertzea ere.

Detektigailua aktibatu ahal izateko, beharrezkoa da ikasgelan espazioa libre uztea. Denen artean mahai eta aulkiak paretaren kontra ipiniko ditugu, zutik egon eta mugitzeko espazioa eduki ahal izateko.

Dinamikaren deskribapena:

Lurrean marra bat egin ezazue, argazkiak eta orriak erabiliz. Ikasleek marraren ezkerrean edo eskubian jartzea aukeratu beharko dute, egingo diren galderen erantzunaren arabera. Jarraian, egin daitezkeen galderen zerrenda bat dago, baina, dakizuen bezala, bururatzen zaizkizuen eta taldearentzat egokienak izan daitezkeen galderak egin ditzakezue.

QUE SE COLOQUEN A LA IZQUIERDA DE LA CUERDA LAS PERSONAS QUE... Y A LA DERECHA LAS QUE...

... ezkerrean txokolatea gustoko duten pertsonak...eskubian gustoko ez dutenak.

... ezkerrean medikua izatea gustatuko litzaiekeen pertsonak, eskubian ez litzaiekeenak gustatuko.

... ezkerrean zomorroek nazka ematen dieten pertsonak eta eskubian ez dietenak ematen.


... ezkerrean ile kiskurra duten pertsonak, eskubian ez dutenak.

... ezkerrean norberaren lau abizen baina gehiago dakiten pertsonak, eskubian ez dakitenak.

... ezkerrean abenturak gustatzen zaizkien pertsonak, eskubian ez zaizkienak gustatzen.

... ezkerrean estralurtarrak existitzen direla sinisten dutenak, eskubian ez dutenak sinisten.

... ezkerrean eskolan ondo portatzen direla pentsatzen duten pertsonak, eskubian hori pentsatzen ez dutenak.



... ezkerrean letxuga gustoko pertsonak, eskubian gustoko ez dutenak.

... ezkerrean jolas hau egiten ondo pasatzen ari diren pertsonak, eskubian ez direnak ondo pasatzen ari.

... ezkerrean betaurrekoak dauzkaten pertsonak, eskubian ez dauzkatenak.

... ezkerrean maiteminduak dauden pertsonak, eskubian ez daudenak.

... ezkerrean aita/ama Gasteizkoak dutenak, eskubian Gasteizkoak ez dutenak.

... ezkerrean beste herrialde batean jaiotako familiak dauzkatenak, eskubian ez dauzkatenak.

... ezkerrean azken astean zehar negar egin duten pertsonak, eskubian ez dutenak egin.

... ezkerrean norberaren urtebetetze egunean besteek kantatzean lotsa sentitzen dutenak, eskubian lotsarik ez dutenak sentitzen.

... ezkerrean udan ondo pasa duten pertsonak, eskubian udan aspertu direnak.

Dinamika bukatzean, elkar zaitezte eta gertatutakoari buruz komentatu. *Nortzuk dira desberdinak arrarotasun-detektagailuaren arabera? Zer esan nahi du orduan desberdina izatea?*

Ateratako ondorioak arrarotasun-albumean idatzi ditzakezue.

1.3 DINAMIKA. NI DESBERDINA NAIZ (25 MIN INGURU.)

Momentu jakin batean denak desberdinak garela ados bazaude, goazen jakitera ea zerk egiten gaituen desberdin, eta ondorioz zerk egiten gaituen pertsona paregabeak eta bereziak izatea. Ariketa hau ikasgelan garatuko dugu. Honetaz gain, kanpora eraman dezakegu eta etxekoen edota lagunaren partaidetza eskatu.

Dinamikaren deskribapena:

Ikasle bakoitzak norberaren 3 ezaugarri ezagutu beharko ditu, besteekiko desberdinak eta paregabeak egiten duten alderdiak. Alderdi fisikoa, izaera, keinuak, ohiturak, eta abarri buruzkoak izan daitezke. Horretarako 3 ikaskideei honako galdera egingo zaizkie: *ZER USTE DUZU ZUK NI DESBERDIN EGITEN NAUELA?*


Ikasgelatik ibiltzen eta modu aske batean mugitzen, ikasleak beraien artean aurkituz joango dira eta aukeratutako pertsonarekin hitz egingo dute. Honek erantzuna (ahalik eta laburren) azalean idatziko dio, hautatutako gorputz-atalean. Modu honetan, dinamika bukatzean, ikasle bakoitzak 3 ezaugarri berezi izango ditu azalean idatzita.



Ariketa, gorputzean dituzten hitzen argazkia ateraz amaituko da (3 ezaugarriak azaltzen diren argazki bakarria izatea gomendatzen dugu). Dinamika arintzeko, ikasgelaren izkina bat photocall moduko batean bilakatu dezakezu, argazki kamara eta tripode bat ipiniz espazio horretan, handik pasatzen den ikasle bakoitzak jarrera bat hartu dezakeelarik..

* Unitate didaktiko honen azkeneko saiorako irakasleak argazki guztiak paperean inprimatuak izango ditu, haiekin lan egiten jarraitu ahal izateko.

1.4 DINAMIKA. LAGUN DESBERDINEN BILA! (Ikasgelatik kanpo egiteko dinamika)



Ariketa hau gure artean egin ondoren, oraingoan geure inguruan dauzkagun pertsona garrantzitsuengan pentsatuko dugu. Maite dugun pertsona bat aukeratuko dugu, gure klasekideek ezaugutzen ez duten bat. Gurekin bizi den pertsona bat izan daiteke ala ez: lagunak, bizilagunak, aitona edo amona, lehengusu bat, irakasle bat... Aukeratzeko garaian, hurrengo saiorako aurreko ariketan klasean egin dugun berbera eskatuko diogula kontuan hartuko dugu. Honela, bere azalean paregabea egiten duen zerbait idazten lagunduko diogu, hau da, arrarotasunen bat. Ondoren, argazki bat egingo diogu..

* Argazki hauek irakasleak mobilaren bitartez jasoko ditu, antzokiaren ondorengo saiorako

(3.2 dinamikarako) inprimatuak eduki ahal izateko

1.5. DINAMIKA. PAISAIA MUGIMENDUAN (10 MIN INGURU.)

Aurreko proposamenen alternatiba moduan, fokua ikuskizunaren gaian ipini ordez, haren lengoia izatea gonbidatzen zaitugu: dantza..

Hurrengo ariketa mugimenduak sortzean, eta errepikatzea eta berrinterpretatzean datza. Helburua, alde batetik, geure gorputzarekin eta mugimenduarekin lan egitea da, eta bestetik, talde kohesioa lantzea. Nola gauden, nola sentitzen garen, edota antzokian bizitako momentuak deskribatzen duten gorputz-paisaia bat sortuko dugu.



Dinamikaren deskribapena:

Taldea borobilean ipiniko da. Pertsona batek (adibidez) nola sentitzen den inguruko mugimendu bat proposatuko du eta denek mugimendu hori errepikatu / berrinterpretatuko dute. Taldean buelta guztia egingo da, modu honetan mugimendu-paisaia kolektibo bat sortuz.

2. ESKOLATIK ANTZOKIRA

LAN ESZENIKO BAT IKUSTEAREN ESPERIENTZIA

Puntu honetaraino bizitako esperientziekin, zure ikasleak eta zu “Ahatetxo itsusi baten egunerokoa” ikusteko ikusleak bilakatu zarete, sorkuntza artistikoaz disfrutatzeko prest. Albumean piezaren sinopsia aurkituko duzue, berriz irakurri dezakezuen, eta aldi berean antzokiaren atea irekiko dizkizuen sarrerak ere aurkituko dituzue.

FACTORY COMPAGNIA TRANSADRIATICA, TIR DANZA

Egilea eta Zuzendaria: Tonio de Nitto

Antzezleak: Ilaria Carlucci, Fabi Tinella, Luca Pastore, Francesca de Paquale

“Ahatetxo itsusi baten egunerokoa” ikuskizunak antzerkia eta dantza bateratzen ditu, Andersenen haurrentzako klasiko batetik abiatuta; ipuinak dibertsitatearen, nortasunaren eta gizarteratzearen gaiari heltzen dio, hizkuntza erraz eta oroitarazle baten bidez.



Ahatetxoa Andersenez

haraindi doa eta ipuina bere burua ahatetxotzat jotzen duen zisne baten eguneroko moduko baten berri emateko aitzaki gisa erabiltzen du. Zisnea bizitzako zenbait etapatatik pasatuko da, jatorrizko istorioan kontatzen den bezala, eta bere burua eta munduan duen tokia bilatzeko benetako trebakuntza-bidaia bat burutuko du, non dibertsitatea elementu garrantzitsua eta baliotsua dela aurkituko duen.

Jaiotza eta familiaren arbuioa, eskola eta eskolako jazarpena, lan-mundua, ustekabeen heltzen den maitasuna, ehiza eta, gero, gerra, edonoren begietan esplika ezina den izugarrikeria gisa; aurkako mundu bateko etapak, agian, baina bakarrik gure “ahatetxoa” bere burua bere begiekin begiratzeko eta den moduan onartzeko gai den arte, hain zuen ere Andersenen ipuineko ahatetxoari gertatzen zaion bezala, lakuan islatuta bere benetako nortasuna aurkitzen duenean.

“Ahatetxo itsusi baten egunerokoa” ikuskizunean, elementu txiki garaikideak ipuineko egoera bakoitza gogora ekartzeko eraldatzera jolasten da, arintasun eta sormenarekin, Paolo Colettak konposaturiko musika-piezen bitartez.

3. PUNTU ETA JARRAIAN

ANTZOKIRA BISITAREN ONDORENGO JARDUERAK

3.1 DINAMIKA. PAISAIA MUGIMENDUAN (15 MIN INGURU.)

Antzokira bisita egin ondoren, ikusitakoari buruz hitz egiteko espazio bat sortzea beharrezkoa da, eta aurretik egindako jardueren lanarekin erlazionatzea. Dinamika hau ikuskizunaren aurretik egindako **paisaia-mugimenduan** jolasaren bitartez bideratu dezakezue.

Dinamikaren deskribapena:



Zutik, borobilean, antzokian ikusitako obraz oroitu zaitezte.

Pertsona bakoitzak obratik oroitzen duen mugimendu bat egingo du. Taldeak errepikatu egingo du (mugimendu hori zein momentutan egiten zen asmatzen saia gaitezke.)

Bigarren txandan, pertsona bakoitzak mugimendu bat egingo du, obra ikusten nola sentitu zen arabera, edota oroitzen duen emozio baten arabera. Taldeak mugimendu horiek errepikatu egingo ditu.

Jarraian, borobil berbera mantenduz eseri gaitezke, eta azaldutako emozioei buruz hitz egin dezakezue: emozio horiek antzematen al ditugu? Istorioaren zein momentutan sentitu ginen modu horretan? Zergatik geneukan sentsazio hori? Zein momentu gustatu zaigu gehien? Eta gutxien?

* Erabilgarria baldin bada, albumean gordetako ikuskizunari buruzko irudiak ikusi ditzakegu, obra gogora ekartzeko eta pertsonaietaz oroitzeko.

3.2 DINAMIKA. GURE LAGUN DESBERDINAK (20 MIN INGURU.)

Oraingoan, geure artean egindako ariketa imitatuz, ikuskizunaren pertsonai bakoitza desberdin eta paregabe egiten zituen 3 ezaugarri pentsatu. Marraztu eta haien irudien gainean idatzi 3 berezitasunak. Ondoren zera galdetuko dugu: **ZEIN EZAUGARRI BEREZI DITU PROTAGONISTAK? ETA BESTE PERTSONAIEK?**

Jarraian, 1.4 dinamikan zehar egindako argazkiak gogoratuko ditugu denon artean (dagoeneko inprimatuak daudenak) eta gure lagun desberdinak aurkeztuko ditugu. Bakoitzak pertsona hori nor den azaltzeko minutu batzuk


izango ditu, zergatik den garrantzitsua berarentzat eta zein den berezia egiten duen arrarotasun hori kontatuz.

Saioa bukatzeko, argazki guztiak albumean kokatuko dituzue: zuek ateratakoak, ikuskizunaren pertsonaiak eta zuen lagun desberdinenak.

Azkenik, norberak esperientzia honetatik zer eramaten duen islatzen duen hitz edo esaldi bat azaldu txanda batean. Hitz edo esaldi horiek nahi duzuen moduan albumaren orrialdeetan idatzi.

3.3 DINAMIKA. BESTE LAGUN DESBERDINAK

Eskolan "Ahatetxo itsusi baten egunerokoa" lantzeko dinamikak bukatu dituzue dagoeneko. Desberdintasunaren gaia bukatutzat eman nahi ez baduzu eta gaiarekiko irakurketa berriak mahaigaineratu nahi badituzu, azkeneko proposamenarekin aurrera jarrai dezakezu. Helburua gai honekin lan ildo bat planteatzea da, ikasturte guztian zehar landuko diren edukiekiko zeharkako planteamendu bat bilakatu ahal izateko..



Dinamikaren deskribapena:

Jarduera desberdintasunari buruz hitz egiten duten materialak edota pertsona desberdinak erakusten dituzten baliabideak bilatzean datza (ikus-entzunezkoak, egunkarietako zatiak, argazkiak, pertsonai historikoak...). Ikasturtean zehar gauzatzeko planteamendu irekia honetan, materiala jasoz joango gara eta artxibo moduan gure albumean barneratuko dugu. Esan bezala, arrarotasun-albuma ikasturte osoan zehar erabiltzeko tresna batean bilakatu daiteke, saio hauetan ateratako ideiak ere finkatzen joango direlarik.

Jarraian zerrenda gauzaten hasteko pare bat material iradokitzen dizuegu, zeuek pixkanaka handituz joango zaretena. Desberdintasunari buruz beste modu batzuetan hitz egiteko aukera ematen duten materialak dira, baita ere proposamen artistikoen bitartez.



1. “Soy yo” - Bomba Estéreo taldearen bideoklipa.
<https://www.youtube.com/watch?v=bxWxXncl53U>

2. Tximeleta belarriak. Luisa Aguilar eta André Nevés. Album ilustratua.



Azken proposamen honekin unitate didaktiko honi amaiera emango diogu. Zuk eta zure tadeak jarduerarekin disfrutatu izana espero dugu, eta desberdintasunari buruz beste modu batean lan egitea lagundu ahal izatea espero dugu, era dibertigarri, interesgarri eta erraz batean.





BEÑAT ETXEPARE

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKI ARETOA
SALA DE TEATRO PARA NIÑOS/AS Y JÓVENES